

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Organismo Autonomoak

GIZARTE ONGIZATERAKO FORU ERAKUNDEA

Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko aldi baterako lan-poltsan sartzeko eskubidea duten pertsonen behin-behineko zerrenda, administrazio bereziko eskalan, azpieskala teknikoa, erdi mailako teknikarien motakoa, haurren hezitzailea

Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 77.1 artikulua ezartzen duenez, bitarteko funtzionarioen hautaketa prozedura arinen bidez egingo da, berdintasun-, merezimendu- eta gaitasun-printzipioak, publikitatea eta lehia askea bermatuta.

Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea autonomoaren aldi baterako zerbitzuak emateko lan-poltsen kudeaketa arautzen duen araudiaren aldaketa onartzen duen maiatzaren 20ko 80/2021 Foru Aginduaren 4.1.a) artikuluan xedatutakoaren arabera, aldi baterako lana, besteak beste, funtzio publikoan sartzeko plazen deialdiaren bidez egingo da (Lan Eskaintza Publikoak), langileak hautatzeko sistema egokiaren ondoren. Horretarako, langileak hautatzeko sistema horren oinarrietan esplizituki adieraziko da haren funtzio bikoitza (lanpostu hutsak betetzea eta aldi baterako lan-poltsa sortzea).

Abenduaren 26ko 170/2022 Foru Aginduaren bidez, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko karrerako funtzionario izateko iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko salbuespenezko prozesuak arautzen dituzten oinarri orokorrak onetsi ziren, aldi baterako enplegua egonkortzeko 2022ko lan-eskaintza publikoari dagokiona. Foru agindu honen eranskineko 13. oinarrian (aldi baterako lan-poltsak) honako hau jasotzen da: "hautaketa-prozesu honetan ez da lan-poltsarik sortuko, oinarri espezifikotik hala adierazten den deialdietan izan ezik".

Abenduaren 26ko 171/2022 Foru Aginduaren bidez, aipatutako aginduaren I. eranskinetik XXIX.era bitartean agertzen diren plazen deialdia onartu zen, bai eta 2022ko lan-eskaintza publikoari dagokion Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko karrerako funtzionario gisa sartzeko iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko salbuespenezko prozesuak arautu behar dituzten oinarri espezifikoa ere. Foru Agindu honen XIX. eranskineko 5. puntuan (haurren hezitzailea) honako hau jasotzen da: «Prozesu honen oinarri orokorretako 13. oinarrian ezarritakoaren arabera, deialdi honen lehiaketa faseko 4.2 atalean 10 puntu lortu beharreko gutxieneko puntuazioa da, aldi baterako lan-poltsetan sartzeko eskubidea izateko».

Aldi baterako enplegua egonkortzeko 2022ko lan-eskaintza publikoko haurren hezitzaile plazari dagokion hautaketa-prozesua amaitu ondoren (salbuespenezko prozesua), Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak ofizioz jarduten du aldi baterako lan-poltsa eratzeko prozesua hasteko, maiatzaren 20ko 80/2021 Foru Aginduaren 4.2 artikuluekin bat etorritik. Horretarako, lan-poltsa bakoitzean sartzeko eskubidea dutenen behin-behineko zerrenda argitaratuko da Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen enplegu publikoaren atarian eta ALHAOn.

Aurretiaz adierazitakoa eta Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Egitura eta Funtzionamenduaren Erregelamendua onartzen duen Diputatuen Kontseiluaren apirilaren 3ko 25/2012 Foru Dekretuaren 12. artikuluan aurreikusitakoa kontuan hartuta, eta ekainaren 20ko 21/1988 Foru Arauaren 7. artikuluekin lotuta, GOFeko kudeaketako zuzendaritzak

EBAZTEN DU

Lehenengoa. Argitaratzea, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen enplegu publikoaren atarian eta ALHAOn Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen administrazio bereziko eskalako aldi baterako lan-poltsan sartzeko eskubidea duten pertsonen behin-behineko zerrenda (azpieskala teknikoa, erdi-mailako teknikarien klasea, haurren hezitzailea). Zerrenda horiek ebazpen honen eranskinean daude.

Bigarrena. Argitalpen horren bidez, behin-behineko zerrendan ageri diren pertsonen beren eskubidea jakinarazita geratzen zaie.

Hirugarrena. Zazpi egun balioduneko epea irekitzen da, ebazpen hau ALHAOn argitaratu eta biharamunetik aurrera, zerrendan sartutako pertsonen, GOFEn enplegu publikoaren atariaren bidez, honako ekintza hauek egin ditzaten:

a) Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeari jakinaraztea parte hartzeko dituen lehentasunak.

b) Desgaitasuna duten izangaiek eskabidean adierazi beharko dute desgaitasunaren ehuneko eta zer probintzian duten gaur egun espedienteak, desgaitasun-balorazioarekin. Pertsona horiek, lanpostu batean hasi aurretik, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko Laneko Arris-kuen Prebentziorako Unitateak deituko ditu, eskatzen dituzten lanpostuei dagozkien eginkizunak betetzeko gaitasun-ziurtagiria eman dezaten, eta, hala badagokio, behar diren lanpostu-egokitzapenen zerrenda ere eman dezaten.

c) Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak, beste administrazio batzuetako zerbitzuetan sartuz, datu hauek egiaztatu ditzan, jakinaren gainean dagoela eta aurka ez dagoela adieraztea:

— Identifikazioak.

— Titulazioa eta noiz lortu den.

— Egiaztatutako hizkuntza-eskakizuna eta egiaztapenaren balio-data.

d) Hizkuntza-eskakizuna egiaztatuta ez duten pertsonen apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuan ezarritako irizpideak betetzen badituzte (47/2012 Dekretua, apirilaren 3koa, euskaraz egindako ikasketa ofizialak onartzeko eta euskarazko hizkuntza-titulu eta -ziurtagirien bidez egiaztatzen salbuestekoa), dagozkien egiaztapenak aurkeztu beharko dituzte Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko Langileen Arloan.

Halaber, baimena eman beharko dute eredu normalizatu berean, kide diren lan-poltsari edo zerrendari buruzko datuak gainerako kideen eta ordezkariak sindikalaren eskura jartzeko. Zehazki, bi zerrenda mota argitaratuko dira, puntuazioaren arabera ordenatuta:

— Lan-poltsa bakoitzeko kideen zerrenda, honako hauek adierazita: NAN, izen-abizenak, hizkuntza-eskakizuna, lan-poltsako egoera eta puntuazio osoa.

— Pertsonen zerrenda, izendapen-prozeduraren arabera (lanerako prest, hobetzeko moduan edo premiazkoak), honako hauek adierazita: NAN, izen-abizenak, hizkuntza-eskakizuna, ikastetxeak, dedikazioa eta guztizko puntuazioa.

Laugarrena. 7 egun balioduneko epe horren barruan, ebazpen hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, interesdunek erreklamazioak aurkeztu ahal izango dituzte behin-behineko zerrendaren aurka. Pertsona bat zerrendan sartzea xede duten erreklamazioekin batera, hirugarren puntuari zerrendatutako dokumentazioa aurkeztu beharko da.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko maiatzaren 29a

Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen zuzendari-kudeatzailea
ERNESTO SAINZ LANCHARES

▶ ARABAKO FORU ALDUNDIA



▶ DIPUTACIÓN FORAL DE ÁLAVA

ERANSKINA

Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko aldi baterako lan-poltsan sartzeko eskubidea duten pertsonen behin-behineko zerrenda, Administrazio Bereziko Eskalan, Azpieskala Teknikoa, Erdi Mailako Teknikarien motakoa, Haurren hezitzailea.

NAN
30.622.659
72.725.858
18.601.676
16.256.394
14.582.159
16.295.435